

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2453

872/2024 EBAZPENA, apirilaren 22koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitzen diren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Garraio Sanitarioaren Gidaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1314/2021 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egin zen Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Garraio Sanitarioaren Gidaria kategorian / lanpostu funtzionalerako (azaroaren 8 EHAA 221. zk.), eta hain zuzen, prozesu hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien araberaren arautuko da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 5eko 588/2023 Ebazpenaren bidez (ekainaren 22ko EHAA 118. zk.), zeina aldatu egin baitzen uztailaren 28ko 831/2023 Ebazpenaren bidez (uztailaren 18ko EHAA, 136. zk.), eta abuztuaren 9ko 1085/2023 Ebazpenaren bidez (irailaren 7ko EHAA, 171. zk.), lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko eskaintza argitara eman zen Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Garraio Sanitarioaren Gidaria kategorian/lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 4ko 161/2024 Ebazpenaren bidez, argitara eman ziren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin-behinean esleitu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Garraio Sanitarioaren Gidaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko. Bada, erabaki horren eranskinaren 9.8 oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik, epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari bidali dio Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Garraio Sanitarioaren Gidaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko destinoen esleipenari dagokion behin betiko zerrenda. Hortaz, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea, ebazpen honen I. eranskinaren bidez, Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Garraio Sanitarioaren Gidaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan onartutako langileen behin betiko zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 5eko 588/2023 Ebazpenean daude jasota.

Bigarrena.– Onartzea, ebazpen honekin batera doan II. eranskinaren bidez, Teknikari Laguntzaile Profesionalak lanbide-taldeko Garraio Sanitarioaren Gidaria kategoriako / lanpostu funtzionalako destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan baztertutako langileen behin betiko zerrenda, baztertzeko arrazoiak adierazita. . Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 5eko 588/2023 Ebazpenean daude jasota.

Hirugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinaren bidez argitara emateko agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 5eko 588/2023 Ebazpenaren eranskinaren eskaintako lanpostu funtzionalari dagozkion destinoen esleipendunen behin betiko zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Laugarrena.– Behin betiko esleitutako destinoei ezin zaie uko egin, salbu eta uko egite hori beste administrazio publiko edo osasun-zerbitzu batek egindako borondatezko behin betiko mugikortasun-prozedura baten deialdiaren ebazpenari jarraiki destino bat lortzearen ondorioz bada –Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 37.4 artikuluan ezarritakoaren arabera– edo izendapen askeko izendapen baten ondorioz bada.

Bosgarrena.– Destinoa lortzen duten izangaiek betetzen ari diren destinoa utzi beharko dute, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.

Izangaiek, oro har, aurreko destinoa utzi eta hiru eguneko epean jabetu beharko dira lanpostuaz, baldin eta lanpostuak herri berean badaude; bost eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batean badaude; eta hilabeteko epean, izangaiek osasun-zerbitzuz aldatu behar badute. Langileek, emandako destinoaren bidez zerbitzu aktibora itzultzen badira, hilabeteko epea izango dute lanpostuaz jabetzeko, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Lanpostuaz jabetzerakoan esleipenduna zerbitzu-eginkizunetan, aldi baterako barne-sustapenean edo behin-behineko atxikipenean badago Osakidetzan, 2019ko azaroaren 27ko 9.9.3 apartatuan aurreikusten den epea izango du lanpostuaz jabetzeko. Hala ere, epe hori konputatzeko, betetzen duen destinoa ere kontuan hartu beharko da, azken horren esleipenduna ez bada behintzat. Horrela izanez gero, lanpostuaz jabetuko da EHAA-n destinoak behin betiko esleitzeko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunean, baldin eta behin-behineko atxikipenean badago, edo, bestela, kargua-utzi eta hurrengo egunean, baldin eta zerbitzu-eginkizunetan eta aldi baterako barne-sustapenean badago.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Zazpigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 9.8. oinarrian xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 22a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2024ko maiatzaren 22a, asteazkena

I. ERANSKINA

588/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

ONARTUEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA

Ordena	NAN	Izen-abizenak	Guztira
1	***6987**	Ormaetxea Garalde, Juan Pedro	50,5000
2	***2774**	Pablos Gutierrez, Heli	21,1250

2024ko maiatzaren 22a, asteazkena

II. ERANSKINA

588/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA

NAN	Izen-abizenak	Baztertze arrazoia
***4782**	De La Tajada Montoya, Juan Ignacio	Ez du plazarik kategorian
		Ez da estatutario finkoa
		Ez du 2.1.2. oinarria betetzen
		Llierako egon beharreko gutxieneko denbora 1 urte
***7696**	Fernandez Viñas, Felix Javier	Llierako egon beharreko gutxieneko denbora 1 urte
***4423**	Mena Gonzalez, Maria Jose	Ez du plazarik kategorian
		Ez da estatutario finkoa
		Ez du 2.1.2. oinarria betetzen
***4930**	Perez Martinez, Felipe	Llierako egon beharreko gutxieneko denbora 1 urte
***9819**	Ramirez Torralba, Francisco Jose	Ez du plazarik kategorian
		Ez da estatutario finkoa
		Ez du 2.1.2. oinarria betetzen
***2586**	Zapatero Palacios, David	Ez du plazarik kategorian
		Ez da estatutario finkoa
		Ez du 2.1.2. oinarria betetzen

2024ko maiatzaren 22a, asteazkena

III. ERANSKINA
588/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA
LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA
KATEGORIA: GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA
LANPOSTU FUNTZIONALA: GARRAIO SANITARIOAREN GIDARIA

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
***6987**	Ormaetxea Garalde, Juan Pedro	Uribeko ESI	Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Mungjiako EAG-Mungia / Areetako EAG-Getxo / Gorlizko EAG-Gorliz / Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-EAG-Eag gauekin	2	
***2774**	Pablos Gutierrez, Heli	Uribeko ESI	Lehen Mailako Arreta-Lehen Mailako Arreta / Areetako EAG-Getxo / Gorlizko EAG-Gorliz / Mungjiako EAG-Mungia / Etengabeko Arreta Guneak-Etengabeko Arreta Guneak / 7 ordu baino gehiagoko lanaldi jarraitua-EAG-Eag gauekin	2	